

FUNTSEZKO SOZIEATEAK

Gure ideia proiektu handi bat denez, hornikuntza zabala beharko dugu, modu egokian garatu ahal izateko. Hornikuntza zabala behar den horretan, mota askotako hornitzaileak beharko ditugu; kapitala eskuratu, gure proiektuaren azpiegiturak eraiki eta eraikina bere horretan osatu ahal izateko.

Lehenik eta behin, kapitala behar dugun horretan, inbertitzaileak bilatu beharko ditugu, eta negozio gaitasunarekin konbentzitu ditugu. Kapitala, azpiegiturak eraikitzeko eta lokala bere horretan muntatzeko erabiliko dugu. Horrez gain, zerbitzu anitzak kontratatu beharko ditugu, gure proiektua hornitzeko, esate baterako, elektrizitatea, ura, gasa... Gastu finko hauen gestioaz Lide arduratuko da, izan ere, pertseberantzia handiko taldekidea den horretan, finakoak ematen duten arren kontrolatu egin behar dira eta lana eskatzen dute. Gainera, beste motako hainbat hornitzaile beharko ditugu, hala nola, gure ideia aurrera eramateko beharrezkoa zaizkigun hornitzaile zehatzak: ekintza desberdinak antolatzeko konpainiak, taberna zerbitzua, eskainiko ditugun beste hainbat zerbitzuen hornitzaileak... Hornitzaile hauek guztiak kontratatuzko, dugun kapitalaz gain, haiekin akordio bat egin eta elkar lagunduko gara publizitatea eta hainbat ekintzen bidez. Hornitzaile hauekin harremana mantendu eta hauek gestionatzeaz ere Lide arduratuko da, egunetik egunera aldaketa nabariak ematen direnez alor honetan eta eguneratua egotea mesedegarria denez gai hauetan, lanerako pertseberantzia eta aldaketetara ohitzeko gaitasuna erabat lagungarriak izango dira.

Gehiago sakontzeko, guretzat beharrezkoak diren hornitzaileak kontratatuko ditugu. Esate baterako, oinarritzko hornikuntzaz gain, gure proiektua aurrera eramateko ezinbestekoak dugu, beste aisialdiko enprekin harremanetan jartzea. Adibidez: Gure proiektuaren eremu bat futbol eremua den horretan, futbol elkartearekin hitz egin eta akordio batera iritsiko gara, haiek gure futbol txapelketan parte hartu eta antzekoak antolatzen direnean gure eremua erabili ahal izateko eta aldi berean, guk haiek patrozinatuzko. Estrategia bera burutuko genuke bideo-kontsola eremuarekin; materiala eskuratu ahal izateko eta mota anitzeko lekzioak jaso ahal izateko, arlo horretan adituak diren haiekin hitz egin beharko dugu. Horrela, gure eremu guztietan beharrezkoak ditugun hornitzaile guztiekin osatuko ditugu gure eremuak. Eremuak osatzeko egin beharreko gestioez Eneritz arduratuko da, izan ere, berak du taldekideon artean negoziatorako gaitasun handiena. Ezaugarri hori oso baliagarria izango zaigu lana burutzeko orduan, izan ere, enpresa eta elkarte ezberdinek egindako proposamenak baloratu eta xehetasunak negoziatu beharko ditugu.

Bazkideontzat oso garrantzitsua iruditzen zaigu mota askotako hornitzaileak izatea. Izan ere, uste dugu gure proiektua konpetentea eta duina izateko, ezinbestekoa dela hornitzaile onak eta kalitatezkoak izatea, horrela, eskainitako zerbitzuak optimoak izango dira. Eskaini nahi duguna ezinhobea izatea nahi dugunez, gure zerbitzuak arlo bakoitzean dagoen elkarte eta enpresa hoberekin hornitu nahi ditugu, kalitatezko produktu, ikasketa eta zerbitzu hoberekin, gure zerbitzuei alor guztietan hoberekin eskaini ahal izateko.

Horrez gain, bezeroak erakarri beharko ditugu gure eremura, izan ere, hauek egiten dituzten gastuak izango dira benetan gure proiektua hornituko dutenak. Bezeroak gurera erakartzeko lan handia egingo dugu publizitatearen bidez. Publizitatea hainbat motatakoa izango da: sare sozialen, kartelen, web orriaren eta abarren bitartekoa. Publizitatea taldekide guztion artean gestionatuko dugu motaren arabera. Hala ere, aipagarriena web gunea izango da, izan ere, bertan, bezeroei gurekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzeaz gain gure instalazioen argazkiak argitaratu eta gure ekintza esanguratsuen agenda eguneratuko dugu. Hala, bezeroak erakarri. Webgunearen diseinu eta sormenaz Eneritz arduratuko da, beharrezko

jakintzak barneratzen baititu. Eneritzek teknologia alorrean gaitasun handia du eta bere zeregina izango da besteak beste.

Ondorioz, aurretik esandako guztia aztertuta, esan dezakegu gure proiektuak hainbat hornitzaile izango dituela eremuaren eta beharraren baitan. Gainera, hornitzaile hauek eskaini ahal izango dutena ezinhobea izango dela ziurtatu ahal izango dugu. Azkenik, taldekideok elkarlanean hornitzaileengandik lortutako zerbitzua paregabea dela ziurtatuko dugu. Honekin guztiarekin, gure proiektuaren kalitatea ezinhobea izatea eta zerbitzua bikaina izatea bermatuko dugu.